BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4273

EBAZPENA, 2014ko irailaren 16koa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2014ko udan eta 2014-2015 ikasturtean Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte hartzeko onetsiak izan diren ikasketa-elkarteen behin betiko zerrenda jakinarazten duena.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko jarduerez diharduenean, honela dio bere 23. artikuluko 4. paragrafoan: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko ekainaren 18ko Aginduak (EHAA, 2014ko ekainaren 25ekoa) 2014ko udarako eta 2014-2015 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu. Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ondoren zerrendatzen diren ikasketa-elkarteok Irale programaren 2014ko udako eta 2014-2015 ikasturtean irakastorduz kanpora eskainiko diren klase-emankizunetarako behin betiko indarrez onestea, Lurralde Historiko hauetan:

Araba:

Aixkiria AEK euskaltegia
Amurrioko AEK euskaltegia
Arana AEK euskaltegia
Aratz-Pinto euskaltegia
Gasteiz-Adur euskaltegia
Hegoalde euskaltegia
Laudioko AEK euskaltegia
Laudioko udal euskaltegia
Lautadako AEK euskaltegia
Errioxa Kultur Elkartea
Udaberria euskaltegia
Zadorra AEK euskaltegia
Zaldiaran euskaltegia

Bizkaia:

Aita Villasante udal euskaltegia
Arrigorriagako udal euskaltegia
Aurten Bai Fundazioa
Barakaldoko AEK euskaltegia
Barakaldoko euskara udal erakundea

Basauriko udal euskaltegia
Bilbo Zaharra euskaltegia
Bizkaiko AEK
Durangoko udal euskaltegia
Enkarterriko udal euskaltegia
Erandioko udal euskaltegia
Ermuko udal euskaltegia
Euskal Irakaslegoa-Deustuko Unibertsitatea
Galdakaoko udal euskaltegia
Getxoko udal euskaltegia
Gotzon Garitaonaindia euskaltegia
Jose Antonio Agirre Kultur Elkartea
Juan Mateo Zabala euskaltegia
Labayru Ikastegia
Mikelats euskaltegia (Orixe E. SAL.)
Mungiako udal euskaltegia
Muskizko udal euskaltegia
Portugaleteko udal euskaltegia
Santurtziko udal euskaltegia
Trapagarango udal euskaltegia
Txinta kooperatiba
Txorierriko udal euskaltegia
Ulibarri euskaltegia
Urtxintxa Eskola

Gipuzkoa:

Andoaingo AEK euskaltegia
Arrasateko udal euskaltegia
Azkoitiko AEK euskaltegia
Azpeitiko Euskara Patronatua udal euskaltegia
Beasaingo udal euskaltegia
Bedita Larrakoetxea udal euskaltegia
Bergarako udal euskaltegia
Bidasoako AEK
Debagoieneko AEK
Donostiako AEK
EBETE Hizkuntza-Zerbitzuak
Eibarraldeko AEK euskaltegia
Eibarko udal euskaltegia
Emun Koop. E.
Errenteriako udal euskaltegia
Euskal Herriko Ikastolak Sociedad Cooperativa Europea
Euskal Idazleen Elkartea-Hegats
Gernika XXI, S.L.
Goierriko AEK
Hernanialdeko AEK euskaltegia
Herri Jakintza euskaltegia
Hitzez euskaltegia E.M.
Huhezi, SCL

Ilaz Konstituzioko Ikastetxea SCL
Lasarte-Oriako Muntteri AEK euskaltegia
Legazpi 6 euskaltegia
Leintz udal euskaltegia
Maizpide SCL
Mondragon Lingua. S. Coop.
Oarsoaldeko AEK
Soziolinguistika Klusterra Elkartea
Ttakun Kultur Elkartea
Urrats euskaltegia
Mancomunidad Urretxu-Zumarragako udal euskaltegia
Urtxintxa Eskola – Gipuzkoa
Zarauzko AEK euskaltegia

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

EGA edo HE2tik gorako ikastaroetarako berariazko eta jatorrizko materiala prestatu eta banatu behar denean, kasuan kasuko euskaltegi edo ikasketa-elkarteak aldez aurretik adieraziko dio Hezkuntza Sailari, eta hartarako onespena jaso beharko du. Bestelako materialik ez du Hezkuntza Sailak ordainduko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

EGA edo HE2tik gorako ikastaroen emankizunerako euskaltegi edo ikasketa-elkarteak bere egoitzatik hamar kilometro baino gehiagora joan behar duenean, gastu horiek Hezkuntza Sailak ordaindu ditu, kilometroko ohiko prezio estandarrak aplikatuz.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honen aurka interesatuak gorako errekurtsoa jar dezake Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 16a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.